

125.14. Lanbideren ikastaroak

Heziketa-zikloak > Goi-maila

IRUDI PERTSONALAREN ETA KORPORATIBOAREN AHOLKULARITZARAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

Sartzeko baldintzak:

Goi-mailako ziklo edo moduluetan sartzeko, honako baldintza hauetako bat bete behar da:

- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako batxilergo-titulua izatea.
- Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua izatea.
- Batxilergoko irakasgai guztiak gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko proba gainditu izana, ziklo horren lanbide-familiari dagokion aukera baten bidez.
- Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako batxilergo-titulua izatea.
- Lehengo Batxilergo Bateratu Balioanizduneko (BBB) ikasi eta gero emandako batxiler-titulua izatea.
- Teknikari espezialista titulua izatea.
- Unibertsitate-titulua izatea.
- Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea (UBI) edo unibertsitate-aurrekoa gainditu izana.
- Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu izana.
- Batxilergo Esperimentalaren edozein modalitatetan 2. maila gainditu izana.
- Atzerriko ikasketak lehenago zerrendatutako tituluren batekin homologatzeko egiaztagiria.

Ikastaroaren iraupena:

2.000 ordu

- Jarduerak zuzendu eta kudeatu, baliabide materialak, giza baliabideak eta teknikoak antolatuta.
- Modan gertatzen diren aldaketak aztertu, merkatuko joerak bezeroen iguripenetara eta beharretara egokituta.
- Dokumentazioa kudeatu, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.
- Bezeroaren beharrak ezagutu, horien ezaugarriak eta eskakizunak aztertuta.
- Bezeroa komunikazio-gaitasunetan trebatu, eta komunikazio-teknika berriak eskuratzeko plana eratu.
- Protokolo-ekintzen eta ekitaldien antolamenduan aholkuak eman, proiektua landuz eta jarduerak koordinatuz.
- Enpresen irudi korporatiboa sortzeko aholkuak eman, haien eskaerak interpretatuta.
- Irudia aldatzeko proiektuak egin, kalitatea eta dagokion dokumentazioa zainduta.
- Bezeroa makillajeari, ile-apaintetari eta estetikari buruz aholkatu eta trebatu, haren eskakizunei jarraituta.
- Irudi pertsonaleko produktuak eta zerbitzuak merkaturatu, marketin-teknikak erabilia.
- Estilo-aldaketak egin, janzkeraren bitartez, eta jantziei eta osagarriei buruzko aholkuak eman.
- Jantzien, osagarrien eta kosmetikoen erosketan bideratu, bezeroaren iguripenak betetzeko beharrak kalibratuta.



Irakaskuntza hauek laneko arriskuen prebentziorako oinarritzko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak hartzen dituzte barne.

Nire ikasketak amaitutakoan, zer egin dezaket?

Honako lanbide hauetako bat izan dezakezu:

- Erakunde publikoetan eta pribatuetan, protokolo- eta zeremonia-teknikaria.
- Etiketan eta gizarte-usadioetan aditua.
- Jantzkeria-estilismoari buruzko aholkularia.
- Irudi politikoaren, kulturalaren eta artistikoaren arloko laguntzaile teknikoa.
- Arropa- eta osagarri-dendetako aholkularia.
- Irudi korporatiboari buruzko aholkularia.
- Harreman publikoetarako kabineteetako teknikari espezialista.
- Marketin-saileko irudi-teknikari espezialista.
- Irudi-aholkularitzarako kabinetearen zuzendaria.
- Ekitaldietako protokoloari eta antolamenduari buruzko aholkularia.
- Jantzien, osagarrien, oparien eta kosmetikoen salmentari buruzko aholkularia.
- Irudi-zaintzarako laguntzaile pertsonala.
- Ezkontza-antolatzailea.
- Irudi pertsonalari buruzko prentsa espezializatuko aholkularitza.

Ikasketa hauekin jarrai dezakezu:

- Lanbide-espezializaziorako ikastaroak.
- Goi-mailako lanbide-heziketako beste ziklo bat, indarrean dagoen araudiaren arabeko lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Unibertsitate-ikasketak, indarrean dagoen araudiaren arabeko baliozkotzeak ezarrita.

Zer-nolako lan-aukerak izango ditut?

Profesional honek irudi pertsonalaren, korporatiboaren eta publikoaren gaineko aholkularitzara bideraturiko zerbitzu-sektoreko enpresetan egiten du lan, edo edozein enpresatako komunikazio- eta marketin-sailetako diziplina anitzeko taldeetan parte hartzen du.

Era berean, jantziak, osagarriak eta kosmetikoak saltzen dituzten establezimenduetan egin dezake lan, irudi pertsonalaren, publikoaren eta korporatiboaren diseinuaren arloko zereginak garatzen, eta zerbitzuak antolatzen eta egiten.

Zer lanbide araututara sar daiteke titulazio honekin?

Titulu honen bidez, zuzenean ez da inolako lanbide araututara sartzen.

Prestakuntza-plana:

Hauek dira heziketa-ziklo honetako lanbide-moduluak:

- Kosmetika-aholkularitza. (132 ordu)
- Irudi-diseinu integrala. (165 ordu)





- Jantzi- eta osagarri-estilismoa. (231 ordu)
- Ile-apainketari buruzko aholkularitza. (165 ordu)
- Ekitaldien protokoloa eta antolamendua. (100 ordu)
- Gizarte-usadioak. (100 ordu)
- Estetikari buruzko aholkularitza. (198 ordu)
- Komunikazio-trebetasunak. (100 ordu)
- Irudi korporatiboa. (100 ordu)
- Zuzendaritza eta merkaturatzea. (100 ordu)
- Irudi pertsonal eta korporatiborako aholkularitza-proiektua. (50 ordu)
- Ingeles teknikoa. (40 ordu)
- Laneko prestakuntza eta orientabidea. (99 ordu)
- Enpresa eta ekimen sortzailea. (60 ordu)
- Lantokiko prestakuntza. (360 ordu)